

Katuok erpe eta gehiago

Neure irakurle maite eta bihotzekoa:

liburu hau eskuetan baduzu jakin egizu **KURIK** jatela izena. Johan Arranegiko eta Marguerite Van Eyck-en semea. Jaio, itsasoan jaio nintzan, Ja Rehela parean, baina hazi eta hezi he-men, Lekeition. Aita lekeitiarra neban eta ama, barriiz, Brujas urikoa. Gure aita, Arreitatarren etxekoa zanez, Mikolas zahar-rak bere bidaietan beti behar eban gure aita alboan eta halan esan eustan aita zanak Teinaraino be heldutakoa zala. Halako osteraren batean ezagutu eban ama izango neba-na. Markesaren alaba kanta ederrean antzera, benetako markes baten alaba, hain zuzen ere, Egmontekoa, mari-nel batekin maitemindu zan. Halako amoreak ezinezkoak dirala begitanduta -ikustea besterik ez dago marinel mutrikuarra eta markesaren alabaren artekoa edo Romeo eta Julietari gertatua- gure aitak, ama izan-go nebana egoan lekuan hartu eta espa egin eban. Lekeition esaten dakigun -hobeto esanda ekigun-modura Guzurra badinot, nagoan lekutik eneuke ziririk egin behar.



Aurrera egin aurretik, esalditeko hau argitu nahi denez: Askue gure herrikide errimeak, bere Euskalerrriaren Jakintzan liburu edarrean dino Katuak zazpi espiritu ditu ta atsa gaitoa. Argia zan Don Resurreccion, baina ez, horraitino, ni beste! Katuak, espirituak, giteienez, zazpi bidar zazpi be badoguz. Atsarena aipatu ebanean, barriz, Apaltoa kalean ezagutu eban sagu-jaleren bat izango eban gogoan kontixu.

Honezkeru, irakurle, maitea, zeure artean esango zenduan, zer demontre egiten ete deutzon ni lako katu ziztrin batek historia liburu batean? Jakin behar zenduke zorioneko Interneta sortu aurretik, askoz be aurretik, liburuak bazirala. Jakin behar zenduke, baita be, erpedunontzat liburuak idaztea nekeza bada be, irakurri primeran geinkezala eta egin, egiten doguzala -nahiko zendukez zentzako katuon entzumena eta ikusmena!- Beste lekeitiar prestu batek, Jariñ zaharrak esaten eustan: "Con los curas y los gates, pocos trates". Ondu zekien honek, bikarica izanik, zertan eutzon.

Aurkestu izan naiz baina ganora giteigaz. Batzuetan morroi edo mutil-triki, beste batzuetan printzipe; jauregiak eta kale gorria ezagutu izan dodaz; amodia eta gorrotoa, zerrua eta infernua. Zuhurra izan naiz, -izan behar, batez be garai ilun hareetan, sorginak, katuak eta akerrak deabruaren morroi eta neska me ginenean- begiak eta belarriak zabal-zabalik izan dodaz eta espainak itxita.

Maisurik onena bizitza bada, zenbat ote daki zazpi biderrez zazpi bizitza dituenak!

Deabrua adiintsu, horregatik jakintsu" dino atsotitzak eta hala da, baina ez egizue pentsa katu gustiak jakintsuak diranik. Lekeitiako paper zahar gustiak ezagutzen dodaz, Kontzejuan 1800. urtera heldu orduko Berrizko semea eta Bizkaiko hainbeste artxibo autolatatu ebanan Iturriza ikusi neban beharrean, Uriarten, gaur egun Kanpilloa diatzenaguen horretan, lehenago Beingoleatarrak eta gerotzenago, baina honek be urte asko dala, Villarrealtarrak, Benardo eta anaia; beheko elizako sakristian armairu zahar baten pilatzen ziran paperak, liburuak eta buldak danak irakurri dodaz. Penintsulako gerran, ingelezen esanetan, Napoleon handia ezagutzeko suertea izan neban, honegaz batera On Kixote eta Sancho Panza, Langrero eta Pitxarra, Zirilo makinista eta Kokemarro patroia ... Nor ez ete dot nik ezagutu!

Irakurle maitea argia dirudizu eta ez jatzu ezezaguna egingo #.G. Wells idazle ingeleza eta honen The time machine nobela. Ez dau merezi. Hainbat eta gutxiago, Doctor Who BBC-ko telesail aspergarri horrek. Nahiago dodaz nik Wells beraren The war of the worlds eta The invisible man. Hau gustia diuetsut, makina inuzente horrek egiten dubena ez dagoela zure esku, katuonean baino. Kontatuko neukitzudaz Mathusalem izeneko katutzar baten kontuak, harako piramideak egiten euzela ezagutu nebanekoa, baina ez da hau lekua horretarako!

Hau, aldizkari hau, beste ganza batzuk aipatzeko tokia da eta honezkeru konturatuko ziran irakurle bihotzekoa ez nabilela txantxetan. Beste itxura bat emon arren, ni ez naiz harrera eta apaletik gehiago dot. Tente traza hori asko ikusi eta ikasi izanak emeten deustana da, ez besterik.

Orain asmakizun bat: Zer dala ta zer dala, zuria bada be esta urruna, baltza izanda, ez da ikatza; berba egin arren, mihinik ez dau erabilten, badabil be hanka bakoa da. Ezetz igarri? Isten? Ba... gutuna da. Makina bat holako idatzi izan dodaz, eta ez kartak bakarrik baita liburu lodi-lodiak be bai, baina haretan denporetan egilia katua zala esatea ez zan aproposena eta bertan behera gelditu ziran danak. Orain, barriz, ez da holan eta aldizkari honetan idazteko eskatu deustee. Dakidana paperean ipinteko. Ezin ezetzik esan. Hori bai, nik neure erara idatziko dot, etxean erakutsi eusteen erara. Idatzi dagiela euzak eskolan ikasitako moduan. Ni aspaldikua naiz eta nik neureari.

Aldizkari honen ardura hartu ehenari -gizarajoak euzak ez dakie ondu non sartu diran- esan neutseen: Nobela bat idatzi behar dela, nobela izango dezue, ipuin bat nahiago dezuela, ez dago horretarako be arazorik. Baina, azkenean, ez bata ez bestea. Halandabe, nik ez dot presarik eta aldizkari honen ale bakoitzean burura datortena kontatuko deutzuet, baina ezenlan be ez edozer eta edozelan. Amaitu egin behar dot berbarik onena, laburrena ei da eta. Besterik ez, irakurle maitea, aldizkarian zehar ikusiko gozak edo gonaz.





uz danga kunkunio abicata zacs tertziokua potena kankarrua sapra atezuan dzapart zirimiri teuteumarka
teifibristo zingua taketa treupello dzingua teirrist kaketa teurrungplauplin parteimski parasmametra
olagarro kurumiño lentoi lantes kresal maria talako tatan
ara traganarru senperren kurik papardo tipitapa teink ha-
skirri haizkarramarro karpin takarta kolaio estrepo kirris-
bustaubaltz elizape kontziopie boga boga begierre azubil des-
astokillo ikusi makusi zer ikusi kalateori atabaka andra
n tarratada burrundada alaranka kurik arin arin
i teotxiñ gangar abote kalabaka txorien kaka teirrist v
drogoso arrelepo demoniño teamarrota itsuemustu
teaputxero paparroio bekereke koipesto ta
gili gili, jiujaunkia, tangarta, terrala, t
lanue dzanga kunkunio abix
rtziokua potena kankarrua sa
an dzapart zirimiri teuteum